



BIDEOKONFERENTZIA VIDEOCONFERENCIA

60

DEFINIZIOA Zer da?

Urrutiko puntuen arteko komunikazio sinkronikoko sistema telematikoa da, bideo-formatua duena. Komunikazioa noranzko bikoia eta birtuala da. Bilera birtualak egiteko erabiltzen da.

Bideokonferentzia lotutako guneen arabera eta ekipo motaren arabera sailka daiteke.

Lotutako guneen arabera:

Puntutik punturako bideokonferentzia: elkarrengandik urruti dauden bi punturen arteko komunikazioa.

Puntu anitzeko bideokonferentzia: hiru edo leku gehiagoren arteko komunikazioa (hainbat konexiotatik datozen 20 puntu ere konektatzeko aukera ematen du zenbait bideokonferentziak).

Ekipo motaren arabera:

- **Internetera konektatutako ordenagailuak:** Ordenagailura konektatutako bideo-kamera eta mikrofono baten bitarteko elkarrekintza ezartzen dute.
- **Ikasgela edo aretoetan instalatutako sistemak,** ikus-entzule gehiago izan daitezen; puntu anitzeko unitatearekin edo ISDN lotura batekin konektatzen dira.

Horrez gain, bideokonferentzia egiteko programek datuak trukatzeari, faxa, informazio grafikoa eta dokumentala, bideoa eta diapositibak onartzen dituzte, besteak beste.

DEFINICIÓN ¿Qué es?

Es un sistema telemático de comunicación sincrónica bidireccional y virtual, entre puntos distantes, con formato de vídeo. Se utiliza para realizar reuniones virtuales.

Una videoconferencia puede clasificarse de acuerdo al número de sitios enlazados y según el tipo de equipo.

Por el número de sitios enlazados:

Videoconferencia punto a punto: comunicación entre dos lugares distantes.

Videoconferencia multipunto: comunicación entre tres o más lugares distintos (algunos permiten conectar hasta 20 puntos provenientes de diferentes conexiones).

Por el tipo de equipos:

- **Ordenadores conectados a Internet:** Establecen la interacción a través de una cámara de video y un micrófono conectados al ordenador.
- **Sistemas instalados en aulas o salones** para permitir un auditorio mayor, que se conectan con la unidad multipunto o un enlace ISDN.

Los programas para realizar videoconferencia permiten además, intercambiar datos, fax, información gráfica y documental, vídeo, diapositivas, entre otros.

**BALIABIDEAREN
ERABILERA
Nola erabiltzen da?**

Bideokonferentzia bat egiteko, honako hauek behar dira:

- Mikrofonoa eta bideo-kamera (webcama edo antzekoa) dituen ordenagailua, internetera konektatua.
- Bideokonferentzia-programa bat (Netmeeting, CUseeME, iVisit, etab.).
- Seinalea kodetzeko/deskodetzeko behar diren kodekak.
- Gainera, betiere aukeran, honako hauek ere izan daitezke:
- ikasgela lokalean erakusten diren dokumentuak eta urrutiko ikasgelan gertatzen dena proiektatzea ahalbidetzen duen bideo-proiektagailu bat edo ADE bat.

Mikrofonoak ikus-entzuleentzat edo kamera osagarriak dokumentuak edota diapositibak erakusteko.

**UTILIZACIÓN
RECURSO
¿Cómo se usa?**

Para llevar adelante una videoconferencia se necesita:

- Un ordenador conectado a internet con micrófono y cámara de vídeo (webcam o similar)
- Un programa de videoconferencia (Netmeeting, CUseeME, iVisit,...).
- Los códec necesarios para codificar/decodificar la señal.
- De forma opcional, se puede considerar disponer de:

- un videoprojector o PDI que permita proyectar los documentos que se muestren en el aula local y lo que ocurre en el aula distante.

Micrófonos par la audiencia o cámaras auxiliares para mostrar documentos, diapositivas.

IKASGELARAKO GOMENDIOAK

Bideokonferentziaren aplikazio pedagogikoak, ikusiz eta entzunez elkarrekin komunikatzeko ematen ditu aukera zabalak kontuan izanik (aurpegierak, jarrerak, komunikazioan izaten diren eta bideo-talde baten osaeran eragina duten xehetasunak ikustea), beste zentzu bat ematen dio ikasgelako espazio fisikoari (elkarrengandik urruti dauden talde sozialek hartzen dute parte) eta hezkuntza-aukera berezi eta berritzailea dakar:

- Hainbat talde-teknika lantzea errazten du (batzordea, eztabaida, ikasketa bideratua, eztabaida bideratua, elkarrizketa, kasuen azterketa, rolak jokatzea, etab.).
- Kultura anitzeko topaketak errazten ditu (beste hizkuntza eta kulturekiko harremana, joan-etorrietarako gasturik gabe).
- Pertsonen eta erakundeen arteko komunikazioa eta trukea (adibidez, aditu bat edo izen handiko pertsona bat; ikasleek haren esatekoa entzuteko eta galderak egiteko aukera izango dute).

Ikasleekin bideokonferentzia bat antolatzeke, modu ordenatuan eta eraginkortasunez parte hartzeke gomendioen zerrenda prestatu behar da. Horrez gain, bideokonferentziaren iraupena zehaztu behar da (aurkezpena eta sarrera, edukien azalpena, galderak eta erantzunak, ebaluazioa eta amaiera) eta, beharrezkoa balitz, koordinatzaile tekniko bat ekarri. Gomendagarria da beste aldetik parte hartuko duen/duten pertsonarekin/pertsonekin proba egitea, ikasleekin lanean hasi baino lehen. Horrez gain, garrantzizkoa da komunikazioa eragotz dezaketen kanpoko zaratak ahalik eta gehien gutxitzea.

RECOMENDACIONES PARA EL AULA

La aplicación pedagógica de la videoconferencia, con sus posibilidades intercomunicativas visuales y auditivas (observar las expresiones, las actitudes, los detalles que acontecen en la comunicación y que influyen en la formación de un videogrupo), otorga un nuevo sentido al espacio físico del aula (con la participación en grupos sociales distantes) y ofrece una singular e innovadora oportunidad educativa:

- Favorece la práctica de distintas técnica grupales (comisión, debate, estudio dirigido, discusión

guiada, entrevista, estudio de casos, desempeño de roles...).

- Facilita encuentros multiculturales (contacto con otras lenguas y culturas, eliminando costes de desplazamiento),
- La comunicación y el intercambio entre personas e instituciones (por ejemplo, un especialista o persona relevante a la que los alumnos puedan escuchar y preguntar).

Para organizar una videoconferencia con los alumnos, es conveniente preparar una lista de recomendaciones para la participación en forma ordenada y eficiente, determinar la duración (presentación e introducción, exposición de contenidos, preguntas y respuestas, evaluación y cierre) y contar si fuere necesario, con un coordinador técnico. Es recomendable realizar una prueba con la o las personas que participarán del otro lado, previo al momento de trabajo con los alumnos. Es importante además disminuir todo lo posible los ruidos externos que obstaculicen la comunicación.

**GOMENDATUTAKO
GUNEAK**
Non aurki dezaket?

Bideokonferentziarako tresna libreak

Skype

<http://www.skype.com/intl/es/>

Doako zerbitzua ematen du 25 parte-hartzailerentzat gehienez

Dimdim

<http://www.dimdim.com>

Doako tresna aurkezpenak zuzenean egiteko, panelekin, ahotsaz, bideoaz, etab.

Yugma

<https://www.yugma.com/>

Doako tresna, 20 parte-hartzailerentzat.

OoVoo

<http://www.oovoo.com/>

Erabiltzeko erraza eta bideokonferentzian gehienez sei lagun biltzea ahalbidetzen du.

Vyew

<http://vyew.com/site/>

Kalitatezko web-konferentziako eta -lankidetzako zerbitzua ematen du, irakasle, tutore eta ikasleentzat, doan.

WizIQ

<http://www.wiziq.com>

Webean oinarritutako irakaskuntzarako aparteko tresna. Mintegiak modu publikoan programatzeko aukera ematen du.

Bideo-konferentziei buruzko material gehiago**Nola konbinatu arbel digital elkarreragilea bideo-konferentziarekin**

<http://www.youtube.com/watch?v=8ZVAFFTv5CQ>

Bi eskolen arteko bideokonferentziaren esperientzia erakusten duen bideoa

<http://www.youtube.com/watch?v=JkI3IItW1vE>

Jaime Balmes de Cieza-ren (Murtzia, Espainia) eta La Plata-ko (Argentina) Lincoln ikastetxearen arteko bideokonferentzia.

**SITIOS
RECOMENDADOS**
¿Dónde lo
encuentro?**Herramientas libres para videoconferencia****Skype**

<http://www.skype.com/intl/es/>

Ofrece servicio gratuito para hasta un máximo de 25 participantes.

Dimdim

<http://www.dimdim.com>

Herramienta gratuita para hacer presentaciones en vivo, con paneles, voz, vídeo, etc.

Yugma

<https://www.yugma.com/>

Herramienta gratuita para 20 participantes.

OoVoo

<http://www.oovoo.com/>

Fácil de utilizar y permite reunir hasta seis personas en una videoconferencia.

Vyew

<http://vyew.com/site/>

Ofrece un servicio de conferencia y colaboración web de calidad para educadores, tutores y estudiantes de forma gratuita.

WizIQ

<http://www.wiziq.com>

Muy buena herramienta para enseñanza basada en la web. Ofrece la oportunidad de programar seminarios de forma pública.

Más sobre Videoconferencias**Cómo combinar la pizarra digital interactiva con la videoconferencia**

<http://www.youtube.com/watch?v=8ZVAFFTv5CQ>

El vídeo de una experiencia de Videoconferencia entre dos escuelas

<http://www.youtube.com/watch?v=JkI3IItW1vE>

Una videoconferencia entre Jaime Balmes de Cieza de Murcia(España) y el Colegio Lincoln de La Plata (Argentina)